

Suak hartutako baserriko familiari laguntzeko jaialdia antolatu dute ▶ 5



# Euskal Herriko Sega Txapelketako kanporaketetan, bost ordezkari

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Gabirondo eta Aranalde gazteluarrak gaur ariko dira, Larraitzen, Albizua bizkaitarrarekin batera

**BIHAR** ▶ Finalerdietarako txartelaren bila lehiatuko dira Kanflanka leitzarra, Alkorta asteasuarra eta Goikoetxea gazteluarra ▶ 7

N. LATABURU



## Alde Zaharreko sanferminen ohiturari helduz

**TOLOSA** ▶ Besteak beste, entzierroan lasterka aritu ziren gaztetxoak atzo ▶ 3

**TOLOSA** ▶

## Abian da Tolosaren 38. Paleta Txapelketa

Berazubiko frontoian dira partidak ▶ 2

**IRURA** ▶

## Elizaren eraberritze lanak, martxan

600.000 euroko aurrekontua dute ▶ 4

**ASTEASU** ▶

## Santamañako Igoera korrituko dute bihar

Zazpi kilometroko ibilbidea da ▶ 4

**IBARRA** ▶

## 1.000 ibartarrek sinatu dute Udalari arau subsidiarioen tramitazioa eten dezan exijitzeko

Herriko eragile guztien parte-hartzea bermatuko duen prozesu berri bati heltzea eskatu du Herri Plataformak ▶ 6

KIROLAK ▶

# Jokoan da Berazubiko frontoian Tolosaren 38. Paleta Txapelketa

Hamalau bikote ariko dira lehian hiru astez, hilaren 28ko finalerako txartela lortzeko helburuarekin



Joan den urtean jokatu zen 37. Paleta Txapelketaren irudietako bat. NOELIA LATABURU

## ESTI EZEIZA

Asteazkenean hasi zen Tolosa CFk antolatutako 38. Paleta Txapelketa. Guztira, hamalau bikote hartuko dute parte aurtengo edizioan, eta hauek hiru multzotan banatu dituzte. Beraz, joan den urtean baino lau lagun gehiagok eman dute izena. Norgehiagokak Berazubiko frontoian jokatu dituzte.

Bi asteren buruan, A, B eta C multzoen arteko ligaxka jokatu da. Gero, partida hauetako irabazleek hilaren 20an eta 21ean, ostegun-ostirala, final-laurdenetan jardungo dute. Eta 26an, asteazkena, finalerdiak izango dira. Azkenik, hilaren 28an, ostirala, finalerakin eta afariarekin emango diote amaiera paleta txapelketari.

## Arauk, finkatuta

Tolosa CFk antolatutako txapelketa honetan, ligaxka sistema erabiliko dute, eta talde edo multzo bakoitzeko bi lehenak final-laurdenetarako sailkatuko dira. Hala ere, berdinketa-renbat suertatuko balitz, lehenik berdiniduta dauden bikoteen arteko emaitzak hartuko lituzkete kontutan. Baina, honen nahikoa ez balitz, tantee



lazio irabazleak eta finalistak, Berazubin. JOXEMI SAIZAR

orokorrak hartuko liriteke kontuan. Hirugarrenik, onena erabakitzeke talde bakoitzeko lau lehen bikoteen arteko partidak begiraturako liriteke.

Bestalde, norgehiagokak atzeraezinak dira, hau da, ezin da edozein modutan aldatu egutegia. Partidak atzeratzeko arrazoi bakarra eguraldiak eragindakoa izango da. Hala ere, ordezkoren batek jokatu ahal izango du, beti ere bikotearen titular bat mantentzen bada. Partida hauek 30 tantotara izango dira.

Hiru partida dauden jardunaldietan, hauek 18:30ean hasiko dira, eta bi direnean,

19:00etan. Bikote batek kale eginez gero, partidua galdutzat emango diote, 30-0ko emaitzarekin.

Behin final-laurdenetara iristean, partidak txuriz jantzita jokatu dira. Bestetik, antolatzaile batzordearen erabakiak behin betikoak izango dira.

## Txapelketaren egutegia

Lau egun dira txapelketa hasi zela, eta dagoeneko sei partida jokatu dira. Atzo, San Fermin egunean, beste bi partida ziren jokoan Berazubin erredakzio hau itxerakoan. Alde batetik, C

## PARTAIDEAK ▶

### A taldea.

1. Lontxo-Nazabal
2. Xabier-Aierdi
3. Yugeros-Aldazabal
4. Balerdi-Agirre
5. Imaz-Garmendia

### B taldea.

1. Zabaleta-Urdanpileta
2. Goiburua-Etxarre
3. Sarasua-Txapartegi
4. Galarraga-Landa
5. Segura-Segura

### C taldea.

1. Goitia-Otermin
2. Apeztegia-Maiz
3. Artola-Goikoetxea
4. Garmendia-Beobide

taldeko Zabaleta-Urdanpileta eta Galarraga-Landa ari ziren lehian eta, bestetik, A taldeko Lontxo-Nazabal Imaz-Garmendiaren aurka.

Bi egunetako atsedendia-oren ondoren, astelehenean berriro ekingo diote ligaxkari. Indartsu hasiko dira, gainera, hiru partidekin estreinatuko baitute astea. Lehenengoan, B taldeko Apeztegia-Maiza bikoteak jardungo du Artola Goikoetxea bikotearen kontra. Bigarren saioan, A taldeko Lontxo eta Nazabal ariko dira Balerdi eta Agirreren aurka. Eta eguneko azken norgehiagoka, berriz, B taldeko Sarasua-Txapartegi eta Segura-Segurak jokatu dute.

Asteartean berriz, bi saio izango dira ikusgai: lehenengoan, A multzoko Yugeros eta Aldazabalek burutuko dute, Xabier eta Aierdiren aurka. Jarraian, B multzoko Sarasua eta Txapartegi eta Goiburua eta Etxarri izango dira aurrez aurre.

Hurrengo egunean berriz ere hiru norgehiagoka izango dira Berazubiko frontoian. Lehenengoan, Xabierrek eta Aierdik osatutako bikoteak jardungo du, Imazek eta Garmendiak osatutakoaren aurka. Hurrengoan, Zabaletak eta Urdanpiletak jokatu dute Sarasua eta Txapartegiren kontra. Eta azkeneko lehian Galarraga-Landa bikotea eta Goiburua-Etxarri ariko dira nor baino nor.

Asteari amaiera emateko, beste hiru norgehiagoka izango dira: lehenengoan, Lontxo-Nazabal eta Yugeros-Aldazabal ariko dira, bigarrenan Artola-Goikoetxea eta Garmendia-Beobide bikoteak, eta hirugarrenean Zabaleta-Urdanpiletak eta Segura-Segurak neurtuko dituzte indarrak. Hilaren 17an, 18an eta 19a ligaxkako beste sei partidak izango dira jokoan.

KULTURA ▶

## Euskal dantza ikastaroetan izena emateko aukera

### E. EZEIZA

Udaberri dantzari taldeak 2006-07 ikasturterako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Hauen helburua haur eta gaztetxoengan antzarako dantzarako grina bultzatzea da, «eta horretan egingo dugu gure ahalegin nagusia». Euskal dantza ikastaro hau lau urtetik gorako haurrei zuzendurik dago, eta adinen arabera taldeak osatuko dituzte.

Entseguak irailaren 11ko astean hasiko dituzte, eta ikastaroak burutzeko interesatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Jardunaldien epea bederatzik hilabetekoa izango da, eta hasiera batean Igarondo igerilekuan burutuko dira.

Izena eman dutenak hiru multzotan banatu dituzte: lehenengoan, txikien taldean, 2002-2003. urtean jaiotakoak, 2001-2000-1999an jaiotakoak. Eta azkenik, handienak 1998an baino lehen jaiotakoak. Hala ere, 14 urtetik gorakoek ere har dezakete parte.

Hala, izena eman nahi dutenek Igarondo igerilekuan ondoan, Igaralde kalean, taldeak ireki duen bulegoan egin beharko dute. Bulegoa 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute.

## GIZARTEA ▶

## Eskaparatismo ikastaroetan parte hartu izana eskertuz

### E. EZEIZA

Eskaparatismo ikastaroak izandako arrakastaren ondoren, Tolosa 750 Fundazioak guztien parte-hartzea eskertze gain, jardunaldietan parte hartu ezinik geratu ziren guztiei bilera informatibo batera deitu ditu. Ekitaldia Kultur Etxean izango da, datorren asteazkenean, hilak 12, 15:00etan.

Bilera guztiz irekia izango da, eta 750. urteurrenoko ekimenei buruzko informazioa zabalduko dute.

**GIZARTEA ▶**

NOELIA LATABURU

**T**olosarron koloreak omen dira txuria eta urdina, baina azken bi egunetan ez da horrelakorik ikusi gurean. Urdina etxeko armairuan utzi eta gorria izan da txuriaren lagun, batik bat, etxeko txiki-txoenen janzkeran. Hala, eta iruindar petoenen pare, San Fermin Eguna ere Tolosako Alde Zaharrean izan zuen oihartzunik. Askotariko ekitaldiak egin zituzten haurtxoen gozamenarako.

Suziriek eman zioten hasiera zaindariaren omenezko egunari; ondoren, Nafarroako jotzen doinuak entzun ahal ziren goizean zehar, buruhandien maskuri hotsekin batera.

Baina, noski, San Fermin jaietako ikurra zazpi egunetan izaten den entzierroa da. Goizeko zortzietan ez, baina eguerdiko atsedenditxoaren ostean, Alde Zaharreko Korreo kalea Estafeta bilakatu zen 17:30ak aldera. Zezentxo tolosarrak Plaza Berritik abiatu ziren ziztu bizian Tolosako mozo txikien atzetik. Errementari kaletik Trianguloraino igo ostean, Korreo kalean behera bueltatu ziren berriro Plaza Berrian atondutako zezen-plazaraino. Adarkadaren bat edo beste ere izan zen, eta sustoak bata bes-

# Iruindarren pare, txuri-gorriz

Tolosako Alde Zaharrak ere San Fermin Eguna era berezian ospatu zuen egun osoan zehar, haurrentzako ekitaldiekin



Usadioari jarraiki, San Fermini abestu zioten mozo gaztekoek, zezenak entzierroa irten aurretik. N. LATABURU

tearen atzetik ailegatu ziren umetxoentzat. Ondoren, indarrak berreskuratze txokolatea banatu zuten mozo txiki guztien artean. Zezenek ere izan zuten bere partetxoa, eta ez ziren esku hutsik geratu. Gualdean, berriz, sanferminei agur esan behar izan zieten *Pobre de mi* abestuz, eta datorren urtera arte zapi gorria gorde beharko dute.



Umetxo ausartenek buruhandiak ukitu nahi zituzten. N. LATABURU

**PILAR AMIANO ▶ ALDE ZAHARREKO SANFERMINETAKO ANTOLATZAILEA**

## «Aspaldiko kontua da hau; guk duela bi urte berreskuratu genuen»

Atzo amaitu ziren Alde Zaharreko sanferminak. Atzetik talde handi baten lana dago, guztia ondo aterako den ardura hartzen dutenak. Horien artean dago Pilar Amiano. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN** solasean aritu da bera bi egun hauen gainean.

**'Pobre de mi' abestuz agurtuko dituzue sanferminak. Zer moduz joan dira aurtengoak?** Oso ondo. Uste dut umeek ederki pasatzen dutela. Jende askok hartu du parte, eta atzoko suzirian ere jende ugari egon zen jolasean. Umeek eskola bukatu dute dagoeneko,

eta gustura hartzen dituzte horrelako ekitaldiak.

**Aspaldi hasi al zineten jai hau ospatzen?**

Guk duela bi urte berreskuratu genuen, baina aspaldiko kontua da. Lehenago nafarra zen batek botatzen zuen suziri; eta ondoren, Migel Angel Bermudezek jarraitu zuen tradizioarekin, 1992. urtera arte.

**Nola otu zitzaizuen jai hau ospatzea?**

Gehienbat umeengan pentsatu genuen. Lehengokoak helduei zuzendutakoak baitziren. **Zein da helburua?** Umeei San Fermin jaien tradi-

zioa ezagutzera ematea eta batez ere, ondo pasatu dezatela.

**Zer ekitaldi dute hurrek gustukoak?**

Suziriarekin oso ondo igarotzen dute, baina uste dut gustukoak dutena zezenen aurrean ibiltzea dela. Entzierroa bereziki bizitzen dute.

**Lan handia al da zuzentzat?**

Bizilagunen artean egiten dugu, 15 lagun inguruk. Ekainean biltzen gara; festa simplea den arren, badu bere lana.

**Datorren urtean jarraitzeko prest, beraz?**

Dudarik gabe; zezen berriak ekartzen saiatuko gara. ◀

**iragarki laburrak ▶**
**LAN HEZKUNTZA**

**Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

**Diputazioak.** Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

**Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

**Liburutegi** laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

**Administrari laguntzaileak.**

Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluez, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalbezetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitez: 943 313782.

**Haur zaintzaileak,** hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

**Peoiak.** Udalbezetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

## IRURA ▶ AZPIEGITURAK

# Elizaren eraberritze lanak abian

Azaroaren amaierarako bukatuta behar dute; 600.000 euroko aurrekontua dute

IMANOL GARCIA

Irurako San Miguel parrokiko obrak hasi dira dagoeneko. 600.000 euroko (100 milioi pezeta) aurrekontua duten lanek azaroaren bukaerarako amaituta egon behar dute. Construcciones Ipuru da obrak burutzen ari den enpresa.

Barruko hormak pikatzten ari dira egunotan, eta gero kolorea emandakako kare naturalarekin babestuko dute. Erretaula plastikoa beltzez estali dute, lanek sortuko duten hautsek hondatu ez dezaten. Erretaulari orain 20 urte egin zizkioten berritze lanak eta oraingo honetan ez dute ukituko. Eraikinen barruko instalazio guztiak ere berrituko dituzte.

Sakristian ere aldaketak izango dira. Bertan zegoen galdara goiko solairura eramango dute, museoak hartzen zuen gelara. Hau bitan banatuko da

eta zati batek galdara hartuko du eta bestean museoko piezak (irudiak eta jantziak) erakutsiko dituzte.

Orain arteko lanetan bi aurkikuntza egin dira. Alde batek, horma-hobi bat aurkitu dute, eraikin nagusiaren eskuinteko paretan. Ez da ez kaxarik edo gorpurik azaldu, ordea. Bestetik, sakristiaren sabaian arku batzuk azaldu dira, orain egurrezkoa dena lehen harrizkoa zen seinale.

## Laguntza bila

Bien bitartean, obren aurrekontuari aurre egiteko laguntza eske jarraitzen du horretarako sortu den batzordeak. Foru Aldundiak aurten 150.000 euro emango ditu eta espero da datorren urtean ere kopuru bera ematea. Gotzaitegiak eta Udalak, bestalde, bategokiaz 60.000 euro eman ditu.



Erretaula estali dute lanengatik hondatu ez dadin. I. GARCIA

Kutxak ere kopururen bat emango duela azaldu dute batzordekideek.

Enpresen eta herritarren artean egindako eskaerak ez duela nahi bezalako erantzunik adierazi du Joxi Lasa batzordeko kideak: «Bi enpresek soilik emango dute diru laguntza, eta guztira 40 familia konprometitu dira hilero kuota bat

ordaintzera». Bestalde, gogoratu du hilaren bigarren igandean meza egiten den diru bilketa elizaren lanak ordaintzeko erabiltzen dela.

Laguntza emateko interesa duenak parrokiaren telefonora dei dezake: 943 69 28 53. Gogorazi nahi dute, era berean, orain ospakizunak Ikastolako aretoan egiten direla.

## ASTEASU ▶ KIROLA



Parte-hartzaile batzuk, iazko proban. XABI UBEDA / AIURRI

## Seigarren edizoa beteko du Santamañako Kros Igoerak biharkoarekin

Zazpi kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek, 10:30ean abiatuta

### ERREDAKZIOA

Santamañako festak iragaritzen dituen lasterketa proba bihar goizean egingo dute. 10:30ean, Santamaña VI. Kros Igoera, ohi bezala, Asteasuko plazaatik aterako da, eta herrian zehar bitzuli egin ondoren, korrikalariak Santamaña igotzeari ekingo diote. Guztira, zazpi kilometro izango dira.

Izen-ematea doan da, eta ordubete lehenago egin ahal izango da, herriko plazan. Santamaña bertan parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko dituzte eta, horrez gain, hamaitakoa ere eskainiko dute.

Lehenengo postuetan amaitzen dutenek, gainera, dirua jasoko dute. Bai gizonetakoan eta bai emakumetakoan, lehenengoak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 90 euro, hirugarrenak 60 euro, laugarrenetik seigarrenera 15 euro, eta hortik hamargarrena arte 10 euro.

Sari horiez gain, marka hausten dutenek sari berezia jasoko dute. Orain arteko denbora onenak hauek dira: gizonetakoan, Iban Sanchez (33' 50"); eta emakumetakoan, Aintzane Argaiz (33' 21"). Iazko edizoa 109 korrikalarik hartu zuten parte Santamañako Igoerak.

## AMEZKETA ▶

### Altuna II.ak irabazi du San Fermin torneoa

Garikoitz Altunak, Altuna II.ak, irabazi du San Fermin Erremonte Torneoko finala, Xabier Bitoria 35-33 mendean hartuta. Partida gogorra izan zen, eta amezketarra 32-33 galtzen ere egon zen.

## AMEZKETA ▶

### Joxean Tolosa Txapelketako partidak, gaur

Joxean Tolosa Pilota Txapelketako partidak jokatuko dira gaur Amezketan, Ugarte auzoko frontoian. 16:00etan hasita, ondorengoak: kadete mailan, Otegi-Mendinueta; gazteen mailan, Jauregi-Saez; eta nagusien mailan, Ugartemendia-Goenaga. 22:00etatik aurrera, kadete-mailan, Goienetxe-Gaztañaga; gazteen mailan, Garmendia-Azpitarte, eta nagusietan, Azpiazu-Martinez.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
    - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Lizarra S.L.-ren erantzuna irainei

Hilaren 5ean, HIRZAN, Leire Saizarrek (Lizarra S.L.-ko langile ohia) eta Olatz Amianok (LAB) sinatutako gutun bat dela eta, gure enpresako langile guztiak harri eta zur geratu gara: bertan irakur daitezkeen hainbat gauza gezurrak dira, eta argitu beharrekoak.

Lizarra S.L. familia enpresa da, eta momentu honetan 11 langile gaude, 6 gizon eta 5 emakume. Familiako 5 kide ez

ezik, gainontzekoak, gizon eta emakume, konbenio, soldata eta beste hainbat lan baldintza berdinetan gaude.

Diotenez, emakumea enpresako produkzioaren oinarria omen da, baina gezurra da. Ez dago emakumezkoek soilik lan egiten duten sekzioirik. Hemen, arropa garbitu, josi, tolestu, eta abar gizon eta emakumeok egiten dugun lana da. Orain, banaketa lanetan bi gizonetako ere ibili izan da.

Bestetik, 10etik 5 bakarrik omen dira lan egiten dutenak.

Guk diogu 11 garella, eta denok egiten dugula lan.

Haurdunaldi kasuei buruz, ez omen dago ama izan den emakumerik. Bai, bada bat eta, egun, Lizarra S.L.-en jarraitzen du lanean. Beraiek aipatutako kasuetan, lehenengoa, amatasun baja amaitutakoan, berak utzi zuen lana. Bigarrenean, lanpostu egokiago bat topatu zuen. Hirugarrenean, Leire Saizarren kasua, hainbat kontraesan eta gezur larri tarteko, Lizarra S.L.-ren eta Leirearen arteko harremana guztiz hondaturik, Leire Saizar, Olatz Amiano eta

Lizarra S.L.-k adostutako kalte-ordainak ordainduta bukatu zen lan harremana.

Oso larria iruditzen zaigu LABeko ordezkari batek hitz hauek sinatu eta argitaratzea, zer gertatzen den ziurtatu gabe eta beste langileekin hitz egin gabe. Lizarra S.L.-ko nagusi eta langileak oso minduta gaude eta azalpen publiko bat eskatzen diegu gutun hau idazteko gupidarik izan ez dutenei. Argi dago min emateko asmoz idatzi dutela gezurrez eta morboz betetako artikulua.

Lizarra S.L.-n behar den do-

kumentazioa eskuragarri daturik, ikusi nahi duenarentzat.

Bukatzeo, lan baldintza txarretan dauden eta beste hainbat egoera txar jasaten dituzten emakumeek errespetu gehiago merezi dutela.

LAVANDERIA LIZARRA S. L.-KO  
NAGUSI ETA LANGILEAK:  
IÑIGO URRETABIZKAIA,  
MIKEL URRETABIZKAIA, XABIER URRETABIZKAIA, JOXE URRETABIZKAIA,  
ANGELI LOPEZ DE MUNAIN, EVA BELDARRAIN, JAIONE GOIKOETXEA,  
LUIS M<sup>a</sup> SORARRAIN, AGURTZANE URRUZOLA, AMALUR GOIKOETXEA ETA  
RAMON ITURRIA ▶ ASTEASU

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Eztiolari laguntza emateko jaialdia

Herri kirolak eta bertsolariak izango dira, besteak beste



Eztiola baserriak maiatzaren 24an hartu zuen su, teiltatuan kalte handienak jasanik. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Bidegoiango Eztiola baserriak su hartu zuenetik hilabete eta erdi igaro da, eta bertako bizilagunei laguntza emateko jaialdi bat antolatu dute hilaren 29rako.

Jai egun berezia egingo dute. Hasiera herri kirolekin emango diote: 19:00etan, Unai Otaño

eta Joseba Otaegi aizkolariak, Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria harri-jasotzaileak, txingak, lokotxak, txingura eta korrika probak izango dira.

Bertsolariak izango dira ondoren: Peñagarikano, Loidisalletxe eta Zelaia ariko dira.

Frontoian iluntzean afaria egingo dute, soinu-joleek eta bertsolariek animatuta. 1989.

urtera arte jaiotakoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta 1990etik aurrerakoek, aldiz, 15 euro. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 21a izango da.

Familia kaltetuei diruz laguntzeko kontu korronte zenbakia ere zabaldu dute: 2101 0067 2001 2549 8733. Bidania-ko Kontsejura deituz gero ere egin daiteke: 943 68 10 03.

VILLABONA ▶ JAIK

Euskal jaia erromeria eta zikiro jateaz horniturik

'Ekin dantzari, eutsi euskarari' lelopean igaroko dute hilaren 29a plaza inguruan

ERREDAKZIOA

Villabonako Santio jaien barne Euskal Jaia antolatzen ari dira herriko zenbait elkarte.

Erromeria aipatzearekin edonori burura etortzen zaion lehen hitza dantza da. Erromeriak hizkuntzaren batekin lotu beharko balira, berriz, euskara litzateke bururaturiko lehen hizkuntza. Dantza eta euskara lotuz gero, *Ekin dantzari, eutsi euskarari* lelopean, Euskal Jaia 2006 Villabonako Santio Jaien barruan.

Astiazaran anaiei eta Juan Mari Beltran dultzaineroaren musika doinuek emango diote hasiera, hilaren 29an, 19:00-etan, erromeriari. Baina, dantza eta dantza artean atsedeen hartzeko modurik izango da; izan ere, hainbat sagardotegitako sagardoa dastatzeko eta euskal pintxoek gozatzeko aukera ere izango da.

21:00etan afari herrikoia izango da Villabonako plazan. Antolatu den zikiro jateak 20

EGITARAUA ▶

- 18:30. Sagardo dastaketa pintxoan laguntzarekin.
- 19:00. Erromeria: Astiazaran anaiek eta Juan Mari Beltran.
- 21:00. Afari herrikoia: zikiro jatea.
- 00:00. Erromeria, Tapia eta Leturiarekin.

euro balio ditu, eta hilaren 23ra arte dago erosteko aukera, honako lekuetan: Amasa okindegia, Kixubi okindegia, Larrea okindegia, Labezain okindegia, Ogi Goxo okindegia, Shepherds garagardotegia, Iturrigoxo jatetxea, Garmendia harategia, Arnasa, Iru-Aldeta, Maxola, Joe eta Itzalpen.

Antolatzailerak Uxo-Toki elkarte, Behar Zana elkarte, Irrintzi elkarte eta Oinkari dantza taldea izan dira. Laguntzaile, berriz, Villabonako Udala.



Harpidedunen txokoa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK 2 erorketa txartel zotz egingo ditu bere harpidedunen artean, Kilometroak 2006 dendetan erabiltzeko.

ZORTE ON!!



**Denda finkoak:**  
OIARTZUNGO DENDA  
San Esteban enparantza, 11-B / astean: 16:30-19:30 / larunbatetan: 10:00-13:00  
ERRENTERIA-ORERETAKO DENDA  
Herriko enparantza, 1 / astean: 17:00-20:00 / larunbatetan: 10:00-13:00 • 17:00-20:00  
**Denda ibiltariak:** www.kilometroak.com/webgunean

IBARRA ▶ GIZARTEA

# 1.000 ibartarrek sinatu dute Udalarari arau subsidiarioen tramitazioa etetea exijitzeko

Herriko eragile guztiei parte hartzeko aukera emanez prozesu berri bat abian jartzea eta azken erabakia ibartar guztiena izatea eskatzen du Herri Plataformak

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako elkarte, ordezkarri, dendari, herritar xume eta Herri Plataformako kideek arau subsidiarioak geldiaraztea eskatzen duten 1.000 ibartarren sinadurak aurkeztu zituzten herenegun eskaintako prentsaurrekoan, «Udal gobernua sostengatzen duten baino herritar gehiagoren babesa» lortu dutela azalduz.

Prentsaurrekoan adierazita-koaren arabera, sinadura horiek herriko talde eta eragile desberdinekin —Hauspoa, Uz- turpe ikastola, Xepia, Bizi-Nahi, Dendariak, Eneko Aritzeta eta Langostino Moto elkarteak, besteak beste— egindako bilera «emankorren» ondorio dira, «herritarrei, euren iritzia emateko aukera izan dezaten etxete- etxe egindako lan eskeragaren ondorio». Hala, herritarrek euren iritzia eman ondoren, azaldu zuten argi geratu dela herria nolako izango den diseinuan parte hartu nahi dutela eta diseinuan parte hartu ondoren azken erabakiaren jabe izan nahi dutela.

Bestalde, Herri Plataformak arau aldaketan tramitazioan «informazio-rik eza» nagusi izan dela salatu zuen; izan ere, «ez alderdi politiko, ez gizarte eragile, ez sindikatu, ez zuzeneko eragina jasango duten herritarrek, ez dute parte hartu arau berrien prestaketetan». Halaber, Udala prozesu honean ez dela garbi jokatzeko ari adierazi zuten: «Hasierako asmoetan 94.000 m<sup>2</sup> okupatuz 840 etxebizitza eraihi nahi zi-



Mila Lizarralde, Pablo Zumeta, Hanot Karrera eta Mari Jose Ruiz Herri Plataformako kideak, herenegun, Ibarrako udaltxean emandako prentsaurrekoan. Atzean, elkarteetako ordezkarriak eta norbanakoak. I. T.

## INFORMAZIO-RIK EZA

«Udal planeamenduko arauen aldaketan tramitazioan, Udalaren informazio-rik eza nagusitu da»

tuen okupazio bolumen ikaragarriak erabiliz; orain berriz, 700 eraiki nahi ditu 180.000 m<sup>2</sup> erabiliz». Euren esanetan, «horrelako aldaketa sakonak hain epe motzean egitea Udalaren noraeza eta politika argirik eza adierazten dute, Udalaren barruan urak nahasiak dabilzatenaren adierazle». Uda-

## UDALAREN EGITASMOA

«Udaletik bultzatzeko asmoa duten egitasmoak herriaren etorkizuna hipotekatu dezake»

letik bultzatzen den egitasmoari dagokionez, «herriaren etorkizuna hipotekatu dezake-ela», azpimarratu nahi izan zuten.

Era berean, hilabete hauetan guztietan argi geratu dela herritarrek prozesu honetan parte hartzeko Udalak duen «borrondaterik eza» salatu zuen

## SALAKETA

Herritarren sinadurekin Foru Aldundira eta Arartekora jotzeko asmoa azaldu du Herri Plataformak

Herri Plataformak; «herritarren parte-hartzea bermatuko duen prozesu demokratiko eta gardena abian jartzeko eskaerari muzin egin zaio behin eta berrero, eta ez da eztabaida mahai edo fororik bultzatu». Hala eta guztiz ere, prozesuak oraindik ere baduela konponbidea adierazi zuten, baina «Udaletik

## ESKAERA ▶

Sinatu duten 1.000 herritarren izenean, ondorengo eskatzen dio Udal planeamenduko arau subsidiarioen aurkako Herri Plataformak Ibarrako Udalarari:

- ▶ Ibarrako Udal planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioa gelditzea.
- ▶ Herriko eragile guztiei parte hartzeko aukera emanez prozesu berri bat abian jartzea, horrela guztien artean Ibarrako etorkizunari buruz hitz egiteko.
- ▶ Azken erabakia ibartar guztiena izan dadin, garrantzitsuenak diren gaietan herritarrek aukeratu eta erabaki dezaten, herri kontsulta bultzatzea.

eragileen parte-hartze aktiboa bultzatu behar da horretarako; Ikastolako arduradunek, anbulategiko arduradunek, dendariak, biberistek, sindikatuek, Udaleko zerbitzu ezberdinetako arduradunek, herritar xumeek, prozesuan parte hartzeko aukera izan behar dute». Plataformakoen ustez, «Udaletik hori bultzatu eta bermatu behar da, horretarako behar adina informazio eta ballabide herritarren esku jarritz; oraindik gauza txukun bat egiteko garaz da».

## Hurrengo pausua

Herritarren 1.000 sinadura horiek astelenean bertan Ibarrako udaltxera eramateko asmoa du Herri Plataformak. Udaletxeko zigilua jarri ostean, Foru Aldundira eta Arartekoaren bideratuko dute ibartarren sinaduren zerrenda.

Herenegun eskaini zuten prentsaurrekoan, bestalde, oraindik ere herritarrek sinatzeko aukera badutela azaldu zuten; «herriko tabernetan sinaduren zerrendak jarriko ditugu, eta iraila bitarte sinatu ahal izango da».

**Mahala**  
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**

**Alokatzeko.** Saloen apartamentua 2 gelekin eta haize egokitua erekin.  
**Alokatzeko.** Pisua. Tolosan: Amaro eta lurren, eta Anoetan.  
**Alokatzeko.** Garajeak. Araba etorbidean.  
**Salgai (Tolosako lurren).** Ofizinala.  
**Salgai (Tolosa).** Pisua Trinkete plazan, 78 m<sup>2</sup> garaje itxiko aukerarekin.  
**Salgai (Tolosa).** Pisua San Frantzisko, Laskorain eta Larramendin.  
**Salgai (Garajeak).** Tolosako Leidor azpian eta Ibarran, karabana sartzeko garajea.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Deitu **677 32 99 34 zenbakira.**  
**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentuduna. **635 74 52 91.**  
**Zaintzailea.** Emakumea behar da haurrak zaintzeko Alegian. **615 00 32 02.**

### SALGAI

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Berrobin. 29 milioi eta erdi. **Negoziagarria. 618 83 32 56.**  
**Etxea.** Etxea salgai Villabonan. Partikularki. **664 58 62 11.**  
**17:00etatik 21:00etara.**  
**Etxebizitza.** Leitzan 100 m<sup>2</sup>-ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Deitu **699 46 13 65 telefono zenbakira.**

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** «Ondo iruditzen al zaizu puntukako gidabaimenarekin hartu diren neurri berriak? Zerbaiz konponduko duela uste duzu? Jakinararen gainean al zaude?». Sartu eskualdeko egunkariaren webgunean eta eman zure iritzia! ▶

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA ▶

# Hiru gazteluar, leitzar bat eta asteasuar bat, sega kanporaketetan

Gaur-biharretan jokatuko dituzten Euskal Herriko Sega Txapelketako azken bi kanporaketetan parte hartuko dute



Ezkerrean Kanflanka leitzarria iazko Nafarroakoan; eskuinean Gabirondo gazteluarra, Gipuzkoakoan. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Euskal Herriko Sega Txapelketan gaur eta bihar jokatuko dituzte gelditzen diren bi kanporaketak eta sei parte-hartzaile-etatik lau Tolosaldeko eta Leitzaldeko segalariak dira; eta gainera, saio hauetako bat, gaurkoa. Abaltzisketan bertan jokatuko dute. Beraz, eskualdeetako segalariak ez ezik hauen jarraitzaileek ere zer ikusia izanen dute.

Gaur jokatuko duten kanporaketa 19:00etan hasiko da, Abaltzisketako Larraitzen; eta bertan bi gazteluar izanen dira, Kepa Albizua bizkaitarrarekin batera lehiatuko direnak: Joxe Gabirondo eta Mikel Aranalde; biek hala biek ere Gipuzkoako txapelketan, hurrenez hurren, bata txapeldun eta bestea azpitxapeldun egin zutenak. Orduetik, gaur neurtuko dute elkar berriz ere, Albizua alde batera utzi gabe, noski, baina bi gazteluarren arteko norgehiagoka ikustekoa izanen delako ziurrenik.

Beste kanporaketa saioa bihar jokatuko dute, Azkaraten, Loidi baserriaren ondoko belatsoan; hau ere 19:00etan

hasiko dena. Bertan izanen dira Jon Kanflanka leitzarria, Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Mikel Alkorta asteasuarra, hirurak ere finalerdietan egoteko txartelaren bila. Gazteluarrik, iazko Gipuzkoako txapelketan laugarren egin zuen moduan, asteasuarrak aurten egin du. Leitzarria, berriz, iaz hasi zen segan, eta Nafarroakoan azpitxapeldun izan zen.

**Txukun ebakiz**

Kontuan hartzekoa da, ahalik eta gehien ebaki bai, baina, gainera, belarra ongi ebaki behar dutela segalariak; bestela zigorra ezartzeko arriskua dutela, ebakitako pisuari zigor bakoitzeko 20 kilo kenduz.

Horrela, kanporaketa hauetan, besteetan bezala, ordu erdiko epean belar gehien ebakitzeko duten bi segalariak igaroko dira finalerdietara: gaurko saiotik bi eta biharkotik beste biak. Aurreneko kanporaketatik, Lapazaran eta Mariñelarena (iazko Nafarroako txapelduna) sailkatuta daude dagoeneko. Hilaren 23an jokatuko dira finalerdiak, Mañarian, bi saiotan banatuta.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

## Leitzar gaztetxoak beste behin ere deklamazioan saridun atera dira

Sariak 3. eta 5. mailakoek jaso dituzte; bertso-paper lehiaketa, berriz, Intxaustik

ERREDAKZIOA

Pedro Diaz de Ultzurrun deklamazio lehiaketa irabazi eta lehengo hilean jaso zituzten sariak Erleta eskolako ikasle diren gaztetxoek, Iruñeko Nafarroako jauregian.

3. mailako 18 ikasleek osatutako Kontakatilu taldeak, Nafarroa osoko 2. ziklokoen sailean irabazi zuen; 5. mailako 15 ikasleek Orbela taldeak, berriz, 3. ziklokoetan. Euskalkiak hedatzea helburu, *Leitzako errege-erreginak* liburutik eta *Plazaola* aldizkaritik hartutako pasarteen irakurrisiko grabaketak aurkeztu zituzten sariketara eta, beste behin ere, azken

huru-lau urtetan bezala, sariak irabazi dituzte. Bestalde, eskolarteko bakarrikako bertso paper lehiaketako



Nafarroa osoko saridunen artean, lehen planoan dauden hiru karpetatunak eta atzeko biak dira gaztetxo leitzarrik. M. LASARTE

2. zikloko lehenengo saria ere Martxel Intxaustik eskuratu zuen, eta egun berean jaso zuen bere saria.

huru-lau urtetan bezala, sariak irabazi dituzte. Bestalde, eskolarteko bakarrikako bertso paper lehiaketako

LEITZA ▶

## Eskolako futboleko finala 15era atzeratu dute

ERREDAKZIOA

Eskolako harrizko zelaian jokatzen ari diren futbol txapelketako finala gaur bertan jokatzekoa bazen ere, sanferminak direla-eta atzeratu egin dute.

Horrela, Steawa eta Metazirri taldeen artean jokatu duen azken partidu hori gaur zortzi, hilaren 15ean, alegia, jokatu duzela iragarri dute antolatzaileek.

hilberria ▶

### Maria Galparsoro Izagirre

(Jose Maizen alarguna)  
— Golan bego —



Nahiz eta gure artetik urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean amona

Zure bilobak: Mikel, Joseba, Aitor eta Eider, Gorka, Amaia eta Txemi, Iñaki eta Goikana, Iñaki, Xabier, Josu eta Garazi eta Ander

LAZKAO, 2006ko uztailaren 8a

hilberria ▶

### Maria Galparsoro Izagirre

(Jose Maizen alarguna)



ATZO hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere arimaren zuzendaria: Juan M<sup>o</sup> Olaetxea; seme-alabak: Pepita eta Miguel Arruabarrena, Joxe Mari eta Lourdes Garmendia, Milagros eta Luis Albusi, Bittor eta Nekane Vazquez, M<sup>o</sup> Angeles eta Isidro Sukia, Jexuxa eta Jose Ignacio Altuna eta Juan Ramon; Senideak: Julian eta Jexuxa Sukia, Bittor eta Juanita Arandia, Joxe eta Arantxa Beloki; ezkonseñideak, bilobak; ilobak; ilehngusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR larunbata, arratsaldeko zazpitan, Mikel Goiangeruaren parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Heltzidea ▶ Itxurrena Jaletxea (Lazkaoemendi auzoa)

oharra ▶ gorpua beltzalegian dago

LAZKAO, 2006ko uztailaren 8a

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 8a, larunbata ▶ IV. urtea**

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

**22** hotzena **20**

BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek irteera antolatuta du Belagoara hileren 12 eta 13an Hiru behien festa ikustera. Bazkaria Erriberrin, afaria eta hotela Zangozan. Prezioa: 115 euro. Izen-ematea, elkartean.  
**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.  
**Tolosa.** Andorrara mendira irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkartek hileren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari kalea, 5. 943 65 27 89).  
**Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkartek Bizkaiko kostaldera irteera antolatuta du abuztuaren 3rako, 25 eurotan (bazkide ez direnek 27 euro). Izen-ematea, elkartean.

margolanak, Ostatuan ikusgai.  
**Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen lanak, Aranburu Jauregian. Gaur da azken eguna.  
**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.  
**Tolosa.** Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.  
**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinak: *Munduari leihoa*, kolaboratzaileak, agenda...

**Goiko irratia (107.0 FM)**  
13:00. *Kornerra* magazinak. Posta elektronikoa: [kornerra@hotmail.com](mailto:kornerra@hotmail.com)

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Hernialde.** Gregorio Lopezen



**Oriari eskainitako eskultura, Araba etorbidean**

**TOLOSA** ▶ Iñaki Olazabal eskultorearen lanak badu bere lekua. Andoaindarrak maiatzean jarri zuten *Rio Oria ibaia* erakusketa Aranburu Jauregian. Hain zuzen ere, Oria ibaia zeharkatzen dituen zazpi herrien inguruko proiektu-bidaia osatu du: Tolosakoarekin batera, Zegama, Ordizia, Ikaztegieta, Andoain, Zubietia eta Oriari eskainitako piezak egin ditu, tamaina txikien erakusketarako, eta handian herri horietan jartzeko. Erakusketak iraun bitartean egin zuten Tolosakoa, eta Araba etorbidean jarri dute ibaiaren alboan, hark nahi bezala. L. MONTES



**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Zorionak, Lide!  
Familiaren partetik.



**ZORIONAK**  
Uxuek gaur bi urte,  
izeba Onintzak bihar... auskal!  
Muxuak ebakeko partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tarte

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

**ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!**

**HELBIDERATU ZURE KUOTA**

**EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA**

**egunean 0,18 zentimoren truke buzoian**

